



Arartekoaren 2019R-2168-18 Ebazpena, 2019ko abuztuaren 12koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailari gomendatzen zaio berma dezala eskatzailearen premia soziosanitarioak aintzat hartuko direla haren profilerako egokitutako egoitza-baliabide batean, alegia, baliabide egokian.

Aurrekariak

Arartekoari herritar bat zuzendu zitzaion, bere anaiaren izenean. Horren esanetan, bizi autonomoan eta diabetesaren gaixotasunean laguntzeko beharrei aldi berean eta behar bezala arreta eskaintzeko egoitza-baliabidea ezestearekin ez zegoen ados.

Kexagileak adierazi zuen anaiak, adin nagusikoak, adimen-urritasun moderatua duela, eta diabetikoa dela. Lanerako zentzura doa eta orain arte gurasoekin bizi da, eta haiek arduratu dira intsulina emateaz —egunean 3 aldiz hartu behar du—. Gurasoak adintzen ari dira eta beste pertsona bat zaintzeko gaitasuna murriztuz doa. Bestalde, (...)ri intsulina kontrolatu eta administratzea ezinezkoa suertatu den kasu murrizetan (ospitaleratzea), larrialdiz ospitaleratu behar izan dute odolean glukosaren maila egokiak berreskuratzeko, modu arriskutsuan kontrolik gabe baitzeuden. Ildo horri eutsiz, gurasoak adinean aurrera doazenez eta (...)k kontrolatu eta sendagaia autoadministratzeko zailtasun nabarmenak dituen, familiak egonaldi laburreko egoitza-baliabidea eskatu zuen, zaindariak arnasa har zezan. Dena den, azken helburua (...) denborarekin egoitzan gelditzeko prestakuntza egokia egitea zen. Familia-egoitzan zaintzetik bere autonomia mailarekin bat, egoitza-baliabidean bizi egitera pixkana pasa nahi zen. Nolanahi ere, baliabideak osasun-beharrei ere erantzun behar zien, hau da, diabetesa kontrolatu eta intsulina egunean hirutan administratu behar zen.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egonaldia ezetsi zion, behar horietarako baliabide egokirik ez zuelakoan. Eskaintzen zitzaion aukera (...)k duena baino autonomia-maila askoz murriztuagoa duten pertsonentzako egoitza-baliabidea zen. Nolanahi ere, bertan osasun-arreta bermatzen zen, baina autonomia pertsonala urritu eta gizarte-jarduerak (gizartean parte hartu eta harremanetan jardutea) mugatzearen kaltean.

Kexagileak APDEMAren (Adimen-Ezintasuna duten Pertsonen aldeko Arabako Elkarte) eta ADAren (Arabako Diabetes Elkarte) txosten batzuk aurkeztu zituen; horietan, zenbait aukera eta alternatiba iradokitzen ziren. Lehenengo elkarteak proposatu zuen lagundutako etxebizitza bat aitor ziezaion, horixe baita ezgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza-modalitateetako bat, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko Dekretuaren (185/2015, urriaren 6koa) arabera. Arabako Diabetes Elkarteak interesdunari intsulina ematen zaiola bermatzeko moduak zituen hizpide.





Nolanahi izanik ere, pertsona horrek ezgaitasuna du, eta, laster (ordura arte izan dituen "zaintzaileak" adinekoak dira-eta), egoitza-zerbitzu bat eta osasun-laguntza behar zituen eta horiek bateragarriak izan behar zuten ahalik eta autonomia-maila handiena ematen dion bizi-proiektuarekin.

Gertakari horien aurrean, Arartekoa Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari zuzendu zitzaion eta (...)rentzat egindako banakako arreta-plana eskatu zion, bere behar soziosanitarioei arreta eskaintzeko baliabide egokiekin batera.

Gizarte Zerbitzuen Sailak lehen eskainitako hiru egonaldi laburretan emandako arretaren inguruko informazioa helarazi zuen. Lehenengo biak etxebizitzetan egin ziren, laguntzarekin, gizarte-baliabiderik egokiena zelakoan, baina intsulina behar bezala administratzeko osasun-laguntzarik ez zen eskaini. Horregatik, hurrengo egonaldi laburra *"se realizó en la residencia Etxebidea pues **aun no siendo el recurso más adecuado** al perfil de (...), se cuentan con los recursos sanitarios necesarios"*.

Egoeraz jakitun izanik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, (...)ren behar soziosanitarioak kontuan hartuta, erantzun egokia emateko aukera desberdinak balioztatzen ari zen. 1) Osakidetzari etxeko erizaintza-zerbitzua eskatzea; 2) Arabako Diabetes Elkartearekin lankidetzeta-hitza, horrek glukosa mailak kontrolatu eta intsulina administratzeko; 3) indartze-pertsona kontratatzea, osasun-eremuan gaitasunekin, laguntza emateko. Bien bitartean, foru zerbitzuak ondorioztatutakoaren arabera, *"se seguirá tratando de dar respuesta a las necesidades puntuales de respiro de la familia del usuario en la Residencia Etxebidea, ya que en la actualidad **sigue sin podersele dar cobertura a las necesidades sanitarias de (...) a una vivienda con apoyos"**.*

Erantzun hauen ondoren, zaindariak arnasa hartzeko beste egonaldi labur bat eskatu da eta oztopo berdina nahiz dinamika zirkular maltzurra aurkitu ditu: egonaldi laburra eskatzen denean, etxebizitza laguntzarekin da (...)ren autonomia-mailarako egoitza-baliabide egokia, baina osasun-erantzun egokia ez du, beraz, egokia ez izategatik familiak baztertzen duen baliabidea (Etxebidea) eskaintzen zaio. Egonaldiari uko egitean, jada ez dago berariazko eskaerarik, beraz, balizko eskerako ez dago konponbiderik eta ez da aktibatzen ere. Hala, berriz abiapuntuan gaude.

Gogoetak

1. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 46.1. artikuluan honela ezartzen du: *"Osasun-arazo larriak direla-eta, edo eginkizunen arloko mugak direla-eta, eta/edo gizartetik bazterturik geratzeko arriskua dela-eta, pertsona batzuek behar dituzten zainketek osatzen dute arreta soziosanitarioa, osasun-arreta eta gizarte-arreta aldi berean biltzen dituen, koordinatua eta egonkorra, arreta jarraituaren printzipioarekin bat datorrena"*. Artikulu bereko



3. atalak hala dio: *“arreta-zerbitzu bat soziosanitarioa baldin bada hala da eta ez bada ez da, (...), eta dena delako baliabidearen edo atalaren titulartasuna edonorena delarik ere, edonolako konplexutasun-maila duelarik ere, eta baliabide horri edo atal horri soziosanitario izena jarri dioten edo ez begiratu gabe”.*

Kasu honetan beharra argi eta garbi soziosanitarioa da, osasun- eta gizarte-arreta aldi berean, koordinatuta eta egonkorra behar dituen neurrian

2. Lege berak 25. artikuluan gizarte-zerbitzuen sistemako zerbitzuak eta prestazioak lortzeko baldintza orokor hauek xedatzen ditu, besteak beste:

“a) zer edo zer behar duten edo eskatzen duten pertsonen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Karteran kasuan kasurako definiturik dauden ezaugarriak bete beharko dituzte, eta, horretarako, dagokion balorazio-tresna teknikoa erabiliko da;

b) prestazioek edo zerbitzuek pertsona hartzailearen beharrei erantzuteko egokiak izan behar dute, eta erreferentziako profesionalak egiaztatu beharko du hala dela, agiri tekniko baten bidez;”

Aurreko atalean azaldu den bezala, erabiltzaileak berak (bere ordezkarien bitartez) eta administrazioak laguntza duen etxebizitzan osasun-arretarik ez egotearen ondorioz preskribatzen den baliabidea (...)ren profileren egokitzen denik ez dute uste. Are gehiago, aldi berean osasun- eta gizarte-arretaren beharrei erantzuteko ez da behar bezalako baliabidea.

3. Banakako arreta-planek epe laburrean erabiltzailearen ezinbesteko beharrak kontuan hartu behar dituzte, baina baita epe ertain eta luzeari begira, ziurrenik gertatuko direnak ere, denboran ahalik eta erantzun egonkorrenak eta koherenteenak emateko. Kasu honetan, esku-hartze plana diseinatzean egokia dirudi gurasoen adina kontuan hartzea, seguru aski, orain arte egiten ari diren moduan zaintzen jarraitzeko zailtasunak izango baitituzte. Horrek iradokiko luke **epe ertainerako plana** egitea, arreta- eta zaintza-formula batetik (etxea) bestera (egoitza) modu egokian pasatzea ahalbidetzeko. Modu horretan, pixkana doitu litzateke behar bezalako erantzun soziosanitarioa, (...)ren autonomia profilari erreparatuz.

Espediente hau izapidetzeko foru zerbitzuarekin egin diren gestioetan, Arartekoari jakinarazitakoarekin bat, araudiak zaindarien “arnasa hartzeko” etxebizitza komunitarioan egonaldi laburrak egitea (gehienez 45 gau urtean) ahalbidetzen du. Formula hori interesgarria izan liteke konfiantza sortu eta bi aldeak, bai (...), bai ama, formula horri ohitzen joateko, amak zaintza bermatu ezin duenerako. Agian, egonaldi laburretako plana (hilean behin), betiere baliabide berdinean (behin betikoa izan litekeenean), urte osorako programatu eta eskatu beharko litzateke, administrazioak baliabidea behar soziosanitario



horiatarako planifikatu eta egokitzeko. Beste formula bat litzateke etxebizitza babestuan (behar duen arreta soziosanitarioarekin) sar dadin eskatzea eta asteburuetan gurasoen etxera joatea edo eurekin bazkaltzea... hori betiere malgua baita eta pertsona bakoitzari egokitzen baitzaio.

Nolanahi ere, onartutako forma zehatza edozein izanda, nahitaezkoa dirudi epe ertainerako plana definitzea, **erabiltzailearen profilarekiko egokia den egoitza-baliabideak (...)ren behar soziosanitarioei arreta eskain diezaien** eta aldeek adostu eta onartutako iragate-prozesu bidera dezan. Egonaldi iraunkorrera pasako den planaz hitz egiten ari gara, beraz, agian, oso urrun ez dagoen unean baliabidea behar bezala egokitua egotearen aurreikuspena landu beharko luke. Nolanahi ere, bat-batean familiak zaindu ezin izatea kontuan hartu behar da.

Hori guztia dela-eta, kexa honi lotutako espedientean jasotako datuak eta igorritako informazioa ikusita, aurreko gogoetekin bat eginez, honakoa formulatu dugu:

GOMENDIOA

Gizarte Politiken Sailari dagokionez:

- Bere profilarri erreparatuz, banakako planaren bidez egoitza-baliabide egokian eskatzailearen behar soziosanitarioen arreta bermatzea.
- Erabiltzailearen banakako arreta-planean desgaitasuna duten pertsonentzat familiaren zaintza "informaletik" egoitza-baliabidean egonaldi iraunkorraren araubidean arretara pasatzeko formularik egokiena kontuan hartzea.

